

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa

bizkaia:talent eta Cenarrusa Foundation for Basque Culture



Bizkaia:talent, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Sailak sustatutako irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta goi-mailako prestakuntza duten profesionalak bertora erakartzeko, bertan garatzeko eta inplikatzeko baldintzak zein prozesuak sustatzea du helburu, Bizkaia-Euskadiko erakundeetako berrikuntza eta jakintza aurreratuko arloak bultzatzeko asmoz.

Bizkaia:talenteko kideak honako hauexek dira: BEAZ, CIC bioGUNE, Iberdrola, Idom, Industria de Turbo Propulsores (ITP Group), Kutxabank, Mondragon Corporation, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Tecnalia Research & Innovation, IK4 Research Alliance eta Bizkaiko Foru Aldundia. Hain zuzen ere, azken erakunde horretako Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Saila da elkarteburua.

Cenarrusa Foundation for Basque Culture Pete eta Freda Cenarrusak sortu zuten 2003an. Euskal herritarren kultura eta historia sustatzen ditu, eta, horretarako, behar besteko baliabideak eskaintzen dizkie Idaho eta Oregon osoko erakundeei, ekitaldiak, aurkezpenak eta programak abian jarri ditzaten. Fundazioak laguntza ekonomiko edo profesionalaren maila erantsia eskaini dezakeenez, funtsezkoa izan daiteke euskal kultura sustatu nahi duen edozein erakunderentzat.

Jatorrian ikerketaren, proiektuen eta hezkuntza-aukeren bitartez euskal komunitatea mundu osoarekin lotzea, hezteak eta babestea zuen helburu. Horretarako, Euskal Ikaskuntzen Programa sortu zuen Boiseko Unibertsitate Estatalean. Ahalegin hori eta programa osoa ezin arrakastatsuagoak izan ziren, Boiseko euskal eta ez-euskal komunitateko hezitzaileek, enpresa-taldeek eta talde kulturalak batera lan egin zutelako.

Esparru horren barruan, bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek ***Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa*** aurkezten dute, Bizkaiko eta Estatu Batuetako/Kanadako errealitate enpresarial, zientifiko, teknologiko, instituzional eta kulturalaren ezagutzaren bidez parte-hartzaileen talentua nahiz lidergoa garatzeko eta haien lan-ibilbide osoan bi lurraldeen arteko eta parte-hartzaile guztien arteko lotunea indartzeko.

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa

1. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA	4
1.1. Helburua	4
1.2. Programaren egitura	4
1.3. Programaren egutegi orientagarria	5
2. ONURADUNA IZATEKO AUKERAGARRITASUN-IRIZPIDEAK	5
2.1. 1. modalitaterako aukeragarritasun-irizpideak: Euskaditik AEB/Kanadarako trukea	5
2.2. 2. modalitaterako aukeragarritasun-irizpideak: AEB/Kanadatik Euskadirako trukea	6
3. PROGRAMAKO MODALITATEAK: eskakizunak, gastu aukeragarriak eta eskabidean aurkeztu beharreko agiriak	6
3.1. 1. modalitatea: Euskaditik AEB/Kanadarako trukea	6
3.1.1. Gastu aukeragarriak	7
3.1.2. Aurkeztu beharreko agiriak	7
3.2. 2. modalitatea: AEB/Kanadatik Euskadirako trukea	8
3.2.1. Gastu aukeragarriak	8
3.2.2. Aurkeztu beharreko agiriak	9
4. ESKABIDEAREN PROZESUKO FASEAK	9
4.1. Eskabidearen fasea	9
4.1.1. Eskabideari buruzko informazio orokorra	9
4.1.2. Izangaienezako laguntza	9
4.1.3. On-line erregistroa	10
4.2. Hautaketarako prozesua	10
4.2.1. Aukeragarritasun-irizpideak egiaztatze fasea	10
4.2.2. Ebaluazioaren fasea	10
4.3. Eskabideen balioespena	11
4.4. Esleitzeko prozedura	12
4.4.1. Emandako beka ordaintzeko modua	12
4.5. Erabakiak hartzeko prozesua	13
4.6. Egutegi orientagarria	13
4.7. Izangaienezako feedbacka	14
4.8. Kexak	14
4.9. Programako onuradunei jakinarazpena egin osteko berrikuspen-prozesua	14
4.10. Laguntzaren ezeztapena	14

EUSKADI ETA AMERIKA ARTEKO ALIANTZAK EZARTZEKO 2016KO LIDERGO

PROGRAMA

1. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

1.1. Helburua

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programak honakoak ditu helburu:

- Bi lurraldeetan lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia duten pertsonak Estatu Batuetako zein Kanadako eta Euskadiko nahiz Europar Batasuneko errealitate zientifikoa, teknologikoa, enpresariala, instituzionala eta kulturala zuzenean ezagutzea;
- Bi lurraldeetan lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia duten goi-mailako prestakuntza duten profesionalen arteko lotune pertsonala eta lurraldekoa sortzea eta, horretarako, harreman zuzena edukitzea bertako erakunde/instituzio garrantzitsuenekin;
- Parte-hartzaileen talentua nahiz lidergoa garatzea eta bi lurraldeen arteko nahiz parte-hartzaile guztien arteko lotunea sustatzea haien lan-ibilbide osoan; eta
- Parte-hartzaileen erkidegoa sortzea, jakintza, ideiak zein jarduera egokiak trukatzeko eta bi lurraldeen arteko harreman ekonomikoak, kulturalak, zientifikoak eta instituzionalak ezartzeko.

1.2. Programaren egitura

2016ko Programa honelaxe egongo da egituratuta: 12 asteko prestaketa, 2. modalitateko onuradunen kasuan 10 eta 15 egun arteko egonaldia Euskadin eta 21 eguneko atlantikoaz bestaldeko trukea 1go modalitatekoentzako, eta Euskadiren zein Amerikaren arteko konpromisorako nahiz lankidetzarako aukera iraunkorra.

Prestaketetan, parte hartzaileek Euskadiren zein Amerikaren arteko harremani buruz ikasi, bisitatuko dituzten erkidegoei buruzko jakintzak osatu eta lidergoa garatzeko helburuak zehaztu ahal izango dituzte. Honako hauxe egingo da prestaketetan: ongietorri-deialdia; lurralde anfitrioiako kulturari, ekonomiari eta errealitate instituzional, zientifiko eta teknologikoari buruzko derrigorrezko irakurketak eta gomendatuak (azken kasuan, tokian tokitik nazio-mailara edo nazioartera, hala badagokio); webinarrak eta inkestak; koordinatzaileekin ezarritako tutoretzak; eta atzerriko egonaldi-epealdiaren aurretiko azken bilera.

Atzerriko bisitan zehar parte-hartzaileek iritzi-lider eta erabakiak hartzeko orduan funtsezkoak diren pertsonak ezagutuko dituzte. Talde-ibilbidea nagusi izango da programaren zati handienean, eta, bertan, euskal nahiz amerikar fellowen arteko baterako egonaldiak ere egingo dira. Era berean, banakako hitzorduetarako astia ere egongo da, bekadunek euren interesak atenditu ditzaten eta gutxienez euren sektoreko edo arloko erakundeko ordezkari garrantzitsu batekin batzartu daitezen.

Oharra: Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programako trukea ahal besteko arretaz antolatuko da. Bertan, gainera, zenbait bilera (honako gaiak buruzkoak: politika sozial, ekonomiko eta segurtasunekoak; aniztasuna eta inklusioa; zientzia, teknologia eta berrikuntza; eta hezkuntza, artea edo kultura) eta zuzeneko bisitaldiak egingo dira, baita eztabaida formalak nahiz ez-formalak eta sarean lan egiteko aukerak ere. Hizlariak enpresaren munduko, gobernuko eta gizarte zibileko iritzi-lider eta lider nabariak izango dira.

Nabarmendu egin beharra dago programa bera talde-esperientzia izango dela batik bat. Berariaz aurkakoa adierazten ez bada, programako jarduerak ez dira hautazkoak izango. Bekadunak prestaketetako jardueretan eta trukeko egun guztietan parte hartu beharko dute bete-betean. Beraz, ezin izango dira berandu iritsi edo lehenago joan.

Programaren amaieran, banakako txosten bat eta talde-txosten bat aurkeztu beharko dira, bertan, programari buruzko berrikuspena, ondorioak eta ekintza-planak izango dituzte aztergai. Halaber, amaierako bilera ere egingo da, eta Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programaren azken azterketa aurkeztu beharko da bertan.

Programa hau amaitu ostean, parte-hartzaileak aparteko komunitate batean sartu ahal izango dira, gainerako parte-hartzaileekin ezarritako lotunea sendotzen jarraitzeko, on-line eta off-line abian jarritako zenbait ekimenen bidez. Horrez gain, nahi izanez gero, parte-hartzaileei eurentzat interesgarrienak diren sektoreetan praktikak eta egonaldiak egiteko edo iraupen mugatuko lan-kontratuen inguruko informazioa emateko ahalegina egingo da.

1.3. Programaren egutegi orientagarria

Hona hemen 2016ko Programaren egutegi orientagarria:

Uztaila 2016	Abuztua 2016	Iraila 2016	Urria 2016 (asteak)			Azaroa 2016	Abendua 2016

-  Lurraldeen aurkezpena, sarrera eta ezagutza.
-  2. modalitateko parte-hartzaileen truke-epealdia (AEB/Kanadatik Euskadira)
-  Programako parte-hartzaile guztiek Bizkaian garatutako baterako egonaldia.
-  Programako parte-hartzaile guztiek Idahon garatutako baterako egonaldia.
-  1. modalitateko parte-hartzaileen truke-epealdia (Euskaditik AEB/Kanadara).
-  Programari buruzko azken txostenen prestaketa.
-  Programari buruzko azken txostenen aurkezpena.

2. ONURADUNA IZATEKO AUKERAGARRITASUN-IRIZPIDEAK

Honako aukeragarritasun-irizpideak betetzen dituztenak Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programako onuradunak izan ahalko dira:

2.1. 1. modalitaterako aukeragarritasun-irizpideak: Euskaditik AEB/Kanadarako trukea

Hona hemen eskatzaileek bete beharrekoa:

- Bizkaian jaio izana edo Bizkaiko edozein udalerritan gutxienez 2 urtez erroldatuta egotea eskabidea bidaltzen den egunetik.
- Gutxienez, unibertsitateko titulua edukitzea.
- 25-45 urtekoa izatea, eskabidea bidaltzeko epean (2016ko apirilaren 30ean).
- Gazteleraz, euskaraz eta ingelesez hitz egiteko gaitasun handia egiaztatzea.
- Gutxienez 10 urteko lan- edo asoziazio-esperientzia izatea.

Modalitate honetan, 4onuradun egongo dira gehienez ere.

2.2. 2. modalitaterako aukeragarritasun-irizpideak: AEB/Kanadatik Euskadira trukea

Hona hemen eskatzaileek bete beharrekoa:

- AEB/Kanadan jaio izana edo nazionalitate estatubatuarra edo kanadarra edukitzea eta Ameriketako Estatu Batuetan edo Kanadan bizitzea.
- Gutxienez, unibertsitateko titulua edukitzea.
- 30-50 urtekoa izatea, eskabidea bidaltzeko epean (2016ko apirilaren 30ean).
- Euskaraz edota gaztelaniaz hitz egiteko gaitasuna modu positiboan balioetsiko da.
- Gutxienez 10 urteko lan- edo asoziazio-esperientzia izatea.

Modalitate honetan, 2 onuradun egongo dira gehienez ere.

3. PROGRAMAKO MODALITATEAK: eskakizunak, gastu aukeragarriak eta eskabidean aurkeztu beharreko agiriak

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa hau bi modalitatetan egongo da egituratuta. Hautagaiek eskaera bakarra aurkeztu ahalgo dute 2016ko Programara.

Programan kontuan hartzeko asmoz aurrerago adierazitako agiriak azken eguna baino lehen (2016ko apirilaren 30a) aurkeztu beharko dira atal honetan azaldutako moduan.

Egokia ez bada, bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek ez dute inolako eskabiderik kontuan hartuko, hemen azaldu bezala aurkezten ez direnean. Era berean, ez dituzte hemen azaldutakoak ez beste agiri batzuk kontuan hartuko.

Derrigorrezkoa izango da agiriak ingelesez aurkeztea, ezinbestean ez bada (esate baterako, errolda-ziurtagiria).

3.1. 1. modalitatea: Euskaditik AEB/Kanadara trukea

1. modalitateak lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia daukaten bizkaitarrek (edo Bizkaian erroldatutakoek, agiri honetako 2.1. puntuan adierazten den bezala) Estatu Batuetako eta Kanadako errealitate zientifikoa, teknologikoa, enpresariala, instituzionala eta kulturala ezagutzea dauka helburu. Horrela, haien talentua zein lidergoa garatu eta ahalmen handiko euskal herritarren zein amerikarren sare profesionala sortu ahal izango da, jakintza nahiz jarduera egokiak trukatzeko, bi lurraldeen arteko harreman ekonomiko, kultural, zientifiko eta instituzionalak ezartzeko, jasagarritasuna lortzeko eta Bizkaiko lehiakortasuna hobetzeko.

Modalitate hau Bizkaian onuradunaren jatorrizko lekuan hasierako prestaketa fase batean osatuta dago. Onuradunek AEBn inguruan, AEBko euskaldunen inguruan eta AEBko beraien espezializazio sektorearen gaineko informazio materialak izango dituzte eskuragarri. Era berean prestakuntza-izaerako webinar eta batzar pertsonaletan parte hartuko dute. Urriko lehenengo astean, 1go modalitateko onuradunak beraien kide amerikar/kanadiarrekin baterako egonaldi bat izango dute Bizkaian/Euskadin. Urriko bigarren astean, onuradun bizkaitarrak Washington DCra bidaiatuko dute; han prestakuntza-aktibitate eta -bilerak izango dituzte AEBko sistema politikoak ezagutzeko. Urriko hirugarren astea Idahon burutuko da, estatu eta toki-mailako gai soziopolitikoan inguruan eta laugarren astean zehar onuradunak aukeratutako AEB/Kanadako aktibitate profesionaleko sektoreko lekuan izango da.

OHARRA: onuradun aukeratuak izanez gero, une horretan Estatu Batuetan edo Kanadan sartzeko beharrezkoak diren agiri administratibo edota burokratiko guztiak eduki beharko dituzte parte-hartzaileek. Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for

Basque Culturek behar besteko informazioa emango diete onuradunei, unea iristen denean.

3.1.1. Gastu aukeragarriak

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programaren esparruan antolatutako jarduerekin zerikusi zuzena duten kontzeptu hauek estaliko ditu Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa:

- Estatu Batuetarako joan-etorriko hegaldiak.
- Estatu Batuetako bizitokia.
- Estatu Batuetako barruko joan-etorriak hegazkinez, ibilbide luzeko trenez edo alokatzeko kotxez (joan-etorriak egiteko orduan, bizkaia:talenten aurretiazko baimena eduki beharko da).
- Estatu Batuetako garraioa eta mantenua, baina, gehienez ere, 100 euro eguneko (kilometrajea eta gainerako gastuak ez dira inolaz ere kasuan kasuko ordainagiria behar ez duten gastu aukeragarriak izango).
- Bidaia-asegurua eta erantzukizun zibileko aseguruak
- Beharrezkoak diren beste izapide administratibo batzuk (esate baterako, ESTA, gonbidapen-gutuna...)

OHARRA: gastuak eurotan kontabilizatuko dira. Euroa ez beste moneta bateko gastuetan ezarri beharreko trukaneurria Europako Banku Zentralak (EBZ) gastuak egin zireneko datarako argitaratutako trukaneurria izango da. EBZk zehaztutako eguneroko trukaneurriak Interneteko helbide honetan daude ikusgai: <http://www.ecb.int/stats/eurofxref/>.

3.1.2. Aurkeztu beharreko agiriak

Izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Curriculum Vitae. CVan, prestakuntzari buruzko informazio nabari guztia agertu beharko da, baita lan-esperientziaren, trebetasunen eta gaitasunen frogak ere. Izangaiek erregistratu egin beharko dira, euren profilari buruz eskatutako informazio guztia bete beharko dute eta honako esteka honen bidez igo beharko dute CVa: <https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/register.php>

Gero, eskabidea aurkezteko orduan, izangaiek Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programako atalean sartu beharko dira <https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/> helbidean eta horretarako atondutako "Apply" botoia sakatu beharko dute. Une horretan, sistemak eskabide-kode pertsonala emango die izangaiei.

Ondoren, izangaiek zer modalitatetara aurkeztu nahi duten hautatu eta honako agiri hauek igo beharko dituzte kasuan kasuko ataletara:

- Pasaportearen kopia.
- Errola-ziurtagiria, eskatzailea Bizkaian jaio ez bada.
- Gomendio-gutuna(k) edo erreferentziak (hautazkoa, banan banan igo beharra dago eta gehienez 3 dokumentu onartuko dira).
- Halaber, izangaiek "Motivation to apply for participation in the Program" txantiloia ere bete beharko dute (helbide honetan programari buruz dagoen atalean agertzen da: <https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/>) eta PDF formatuan bidali (5 orrialde, gehienez ere).

Eskatutako agiri guztiak igotakoan, eskabidea ebaluatua izan dadin, izangaiek eskabidea bidali beharko dute, eta, horretarako, "Submit" botoia sakatu beharko dute.

3.2. 2. modalitatea: AEB/Kanadatik Euskadira trukea

2. modalitateak lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia daukaten amerikar/kanadarrek Bizkaia/Euskadiko eta honek Europar Batasunarekin duen erlazioaren errealitate zientifikoa, teknologikoa, enpresariala, instituzionala eta kulturala ezagutzea dauka helburu. Horrela, haien talentua zein lidergoa garatu eta ahalmen handiko euskal herritarren zein amerikarren sare profesionala sortu ahal izango da, jakintza nahiz jarduera onenak trukatzeko, bi lurraldeen arteko harreman ekonomiko, kultural, zientifiko eta instituzionalak ezartzeko, jasangarritasuna lortzeko eta Bizkaiko lehiakortasuna hobetzeko.

Modalitate hau, Bizkaia bidaiatu baino lehenago, onuradunaren jatorrizko lekuan hasierako prestaketa fase batean osatuta dago. Onuradunek Euskadiren inguruan, AEBko euskaldunen inguruan eta Euskadikoko beraien espezializazio sektorearen gaineko informazio materialak izango dituzte eskuragarri. Era berean prestakuntza-izaerako webinar eta batzar pertsonaletan parte hartuko dute. Onuradunak urriko lehenengo bi asteak emango dituzte Euskadin; aste bi horietan zehar beraien industria espezifikotako aktibitate eta orientabideetan parte hartuko dute eta Euskadiko instituzioak bisitatuko dituzte (Madril eta Bruselara bidaiak ere egon litezke, Espainiako eta Europar Batasuneko instituzioak ezagutzeko). Horrez gain, urriko lehenengo astean, beraien kide euskaldunekin baterako egonaldi bat izango dute Bizkaian/Euskadin. Urriko hirugarren astean, AEB/Kanadara bueltatzerakoan, onuradun bizkaitarrekin baterako beste egonaldi bat antolatu ahalko litzateke idahon (onuradunak libre egotearen mende).

OHARRA: onuradun aukeratuak izanez gero, une horretan Europar sartzeko beharrezkoak diren agiri administratibo edota burokratiko guztiak eduki beharko dituzte parte-hartzaileek. Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek behar besteko informazioa emango diete onuradunei, unea iristen denean.

3.2.1. Gastu aukeragarriak

Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programaren esparruan antolatutako jarduerekin zerikusi zuzena duten kontzeptu hauek estaliko ditu Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programak:

- Bizkairako joan-etorriko hegaldiak.
- Bizkaiko bizitokia.
- Europa barruko joan-etorriak hegazkinez, ibilbide luzeko trenetaz edo alokatzeko kotxez (joan-etorriak egiteko orduan, bizkaia:talenten aurretiazko baimena eduki beharko da).
- Europako garraioa eta mantenua, baina, gehienez ere, 100 euro eguneko (kilometrajea eta gainerako gastuak ez dira inolaz ere kasuan kasuko ordainagiria behar ez duten gastu aukeragarriak izango).
- Bidaia-asegurua eta erantzukizun zibileko asegurua
- Beharrezkoak diren beste izapide administratibo batzuk (esate baterako, gonbidapen-gutuna...)

3.2.2. Aurkeztu beharreko agiriak

Izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Curriculum Vitae. CVan, prestakuntzari buruzko informazio nabari guztia agertu beharko da, baita lan-esperientziaren, trebetasunen eta gaitasunen frogak ere. Izangaiek erregistratu egin beharko dira, euren profilari buruz eskatutako informazio guztia bete beharko dute eta honako esteka honen bidez igo beharko dute CVa:

<https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/register.php>

Gero, eskabidea aurkezteko orduan, izangaiek Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programako atalean sartu beharko dira <https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/> helbidean eta horretarako atondutako "Apply" botoia sakatu beharko dute. Une horretan, sistemak eskabide-kode pertsonala emango die izangaiei.

Ondoren, izangaiek zer modalitatetara aurkeztu nahi duten hautatu eta honako agiri hauek igo beharko dituzte kasuan kasuko ataletara:

- Pasaportearen kopia.
- 3 gomendio-gutun edo erreferentziak (banan banan igo beharra dago).
- Halaber, izangaiek "Motivation to apply for participation in the Program" txantiloia ere bete beharko dute (helbide honetan programari buruz dagoen atalean agertzen da: <https://extranet.bizkaia talent.org/profesionals/>) eta PDF formatuan bidali (5 orrialde, gehienez ere).

Eskatutako agiri guztiak igotakoan, eskabidea ebaluatua izan dadin, izangaiek eskabidea bidali beharko dute, eta, horretarako, "Submit" botoia sakatu beharko dute.

4. ESKABIDEAREN PROZESUKO FASEAK

4.1. Eskabidearen fasea

4.1.1. Eskabideari buruzko informazio orokorra

Deialdi honi buruzko informazioa www.bizkaia talent.eus eta www.bebasquetalentnetwork.eus web orrietan dago eskuragarri.

Aukeragarriak direnek eta 2016ko Programan parte hartu nahi dutenek eskabidea behar bezala betetzeko laguntza eskatu ahal izango dute posta elektronikoz (basqueamericanleadership@bizkaia talent.eus).

2016ko apirilaren 30a da 2016ko Programako eskabidea eta eskatutako agiriak aurkezteko azken eguna.

Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek behar beste agiri edota informazio osagarri eskatu ahal izango dute, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertzeko eta balioesteko. Izangaiek prozesu osoan aurkeztutako informazioaren edota agirien egiazkotasunaren eta zinezkotasunaren erantzule izango dira.

4.1.2. Izangiaientzako laguntza

Bizkaia:talenteko eta Cenarrusa Foundation for Basque Cultureko talde administratiboak oso-osorik berrikusiko ditu eskabideak.

Agiriren bat aurkeztu ez bada, izangaiarekin jarri ahal izango gara harremanetan, betiere, deialdiko epearen arabera halakorik egiterik badago eta bizkaia:talenteko eta Cenarrusa Foundation for Basque Cultureko langileek prestasunik badute.

Akatsen bat antzemanaz gero, izangaiek kasuan kasuko jakinarazpena bidali ahal izango dute basqueamericanleadership@bizkaiaitalent.eus helbide elektronikora.

4.1.3. On-line erregistroa

Eskatutako agiriak www.bizkaiaitalent.eus edo www.bebasquetalentnetwork.eus web orrien bidez aurkeztu beharko dira ezinbestean. Horretarako, erabiltzailearen izena eta pasahitza dituen kontua eduki beharko da. Aurkezpen-prozesuko lehen urratsa eskatutako eskabide-orria betetzea izango da, eta, bertan, datu pertsonalak, akademikoak eta lanekoak eskatuko dira, besteak beste. Gero, estraneten programari berari eskainitako atalean sartu eta "Apply" botoiaren bidez aurkeztuko du bere izangaitza. Ondoren, zer modalitatetara aurkeztu nahi duen hautatu eta horretarako eskatutako agiriak igo beharko ditu. Azkenik, eskabidea zuzen beteta dagoela egiaztatu ondoren, "Submit" botoiaren bitartez bidali beharko du eskabidea. Sistema informatikoak beharrezkoak diren datuak sartzen baino ez dio utziko. Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek ez dute inolako informazio gehigarririk kontuan hartuko.

Eskatzaileak erregistratu eta zenbait unetan igo ahal izango dituzte agiriak, eskabidea aurkezteko epea amaitu baino lehen. Momentu jakin batean igotako dokumentuak ez galtzeko, "Save" botoia sakatu beharko da.

On-line erregistratu ondoren, eskatzaileek hautaketa-prozesuaren egoera egiaztatu ahal izango dute <https://extranet.bizkaiaitalent.org/profesionals/> helbidean. Hautaketa-prozesuaren amaieran, estranet pertsonalean agertuko da eskabidearen emaitza (positiboa edo negatiboa).

Modalitate bakoitzean izangaiei zerrenda ere honako webguneetan argitaratuko da: www.bizkaiaitalent.eus eta www.bebasquetalentnetwork.eus. Izangai onuradunen izen-abizenak argitaratuko dira, baina onuradunak ez direnen eskabide-kodea baino ez.

4.2. Hautaketarako prozesua

Hona hemen hautaketarako prozesuko faseak:

4.2.1. Aukeragarritasun-irizpideak egiaztatzeko fasea

Bizkaia:talenteko eta Cenarrusa Foundation for Basque Cultureko talde administratiboaren ardurapean aukeragarritasun-irizpideak betetzen dituzten eskabideak bahetuko dira.

4.2.2. Ebaluazioaren fasea

Lehenengo fasean, ebaluatzaileek izangaiaaren espedientearen azterketa egingo dute, hautaketa/ebaluaziorako irizpide gardenak kontuan hartuta.

Eskabideak Ebaluazio Batzordeak aztertuko ditu, zenbait sektore eta diziplinatako adituak (pribatuak eta publikoak) izango dira batzordekideak, eta behar besteko esperientzia izango dute izangaia baliosteko.

Batzordeak izangaiei ahalmen globala nolakoa den eta euren lan eta lidergo arloko ibilbidea sendoa bezain zentzuzkoa dela baliotsi eta egiaztatu egingo du. Batzordekide bakoitzak izangaiei espedientea aztertuko du, baita aurreko urteetako

esperientzia eta aurkeztutako emaitzak ere. Era berean, izangaiak euren lan-ibilbidean erakutsitako pentsaera independentea eta lidergoa ere aztertuko dituzte ebaluatzaileek. Ondoren, puntuazioa emango diote eskabideari.

Gutxieneko maila lortzen duten eskabideak baino ez dira ebaluazio-prozesuko hurrengo fasera iritsiko.

Bigarren fasean, gehienez ere, 1. modalitatean aukeratu daitezkeen izangai guztietatik zortzik eta 2. modalitatean aukeratu daitezkeen izangai guztietatik lauk (bi kasuetan, lehenengo fasean lortutako puntuazioaren arabera, handienetik txikienera) izango dute elkarriketa birtuala telekonferentziaz egiteko aukera, betiere, lehen aipatutako gutxieneko maila lortu badute. Elkarriketa horretan, eskabide idatzian aurkeztutako elementuak egiaztatzeko eta izangaien motibazioak balioesteko aukera izango dute ebaluatzaileek.

Ebaluatzaileek eskabide osoari buruzko puntuazio orokorra eman beharko dute ados jarri ondoren.

Arrazoren batengatik elkarriketa egiterik ez badago, eskabidea ebaluazio-prozesuko bigarren fasetik kanpo geratuko da zuzenean, eta ezin izango da inolako erreklamaziorik egin. Elkarriketa arazo teknikoengatik bakarrik egiterik ez badago, beste egun bat zehaztuko da, betiere, programa honetan aurreikusitako esleipen-peetan eraginik ez badu.

4.3. Eskabideen balioespena

Eskabideak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira ebaluazio-prozesuan:

- **Prestakuntza akademikoa:** prestakuntza akademikoa ebaluatuko da, titulazio-mota, sariak eta aitortpenak kontuan hartuta.
- **Esperientzia eta trebetasun profesionala eta gaitasunak:** honako hauxe ebaluatuko da: esperientzia profesionala, emaitza nabarmenak (esate baterako, patenteen garapena, argitalpenak, hitzaldietako partaidetza, zuzendaritzako karguak, lidergoa, herritarren sentsibilizaziorako jarduerak, irakaskuntza, jakintzen transferentzia...), hizkuntzak, zeharkako eta lidergo-arloko trebetasunak, lan-ibilbide dibertsifikatua; eta, hala badagokio, izangaiak aurkeztutako gomendioak nahiz erreferentziak.

Era berean, modu berezian hartuko da aintzat eta positiboki balioetsiko da izangaiak enpresa, merkataritza edota industria arloko jardueretan inplikaturik egotea.

- **Programako partaidetzarako eskabidea arrazoitzeko koherentzia eta irmotasuna, garapen profesionalerako aurreikuspenak kontuan hartuta:** izangaiaren motibazioa nolakoa den eta programaren helburuekin bat datorren ebaluatuko da. Zehatz-mehatz aztertuko da sare profesionalen jasagarritasuna (gizarte eta lankidetzaren arloko gaiak kontuan hartuta) eta proiektua izangaiaren aurreikuspen profesionalekin bat datorren.

Balioespen-irizpideak	1. modalitatea: Euskaditik AEB/Kanadarako trukea	2. modalitatea: AEB/Kanadatik Euskadirako trukea
Prestakuntza akademikoa	15	15
Esperientzia eta trebetasun profesionala eta gaitasunak	40	40
Programako partaidetzarako eskabidea arrazoitzeko koherentzia eta irmotasuna	45	45
GUZTIRA	100	100

1. taula: ebaluazio-prozesuko gehieneko puntuazioak

Bi izangairen edo gehiagoren arteko berdinketarik egonez gero, honako honexen arabera egingo da esleipena:

- Deialdi honetarako izendatutako batzordeak egindako elkarriket(ar)en emaitza.
- Emakumeen partaidetzaren balioespen ona.

Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek esleitu gabe utzi ahal izango dute deialdia:

- izangairik ez badago; eta/edo
- aurkeztutako eskaerek elkartearen eta fundazioaren aurreikuspenak eta helburuak betetzen ez badituzte.

4.4. Esleitzeko prozedura

Beka honelaxe emango da:

- Zehaztutako epearen barruan aurkeztutako eskaeretan adierazitako merituen lehiaketaren bidez puntuazio handiena lortu duten eskaerei.

Beka esleitu ahal izateko, onuradunaren, bizkaia:talenten eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturaren arteko hitzarmena sinatu beharko da beti.

4.4.1. Emandako beka ordaintzeko modua


Bi modalitateetan, bizkaia:talentek honako hauxe kudeatu eta ordainduko du zuzenean: joan-etorriko hegaldiak, bizitokia, barruko joan-etorriak, bidaia-asegurua, erantzukizun zibileko asegurua eta beharrezkoak diren beste izapide administratibo batzuk.

Bestetik, truke-epealdiaren hasieran, bizkaia:talentek bankuko transferentzia bidezko diru-sarrera egingo die onuradunei, garraioko zein mantenuko gastuen aurrerapen moduan. Horren zenbatekoa truke-epealdi osorako gehieneko gastu aukeragarriaren %50ekoa izango da.

Onuradunek aukeragarriak eta baimendutako gastuen kasuan kasuko ordainagiriak aurkeztu beharko dizkiote bizkaia:talenti.

Osteko aurrekinak edo ordainketak bankuko transferentzia bidez egingo dira, lehenago ordaindutako zenbatekoa justifikatu ostean.

Bizkaia:talentek legearen arabera beharrezkoak diren atxikipenak egingo ditu, eta une oro ezarri beharreko zerga-arautegia beteko du. 2. modalitateko AEB/Kanadako onuradunen kasuan, beraien herrialdeko zerga-legeak aplikatuko zaizkie.



1. irudia. Eskabidearen prozesua: eskabidearen fasetik esleipenerako prozedurara

4.5. Erabakiak hartzeko prozesua

Bekaren onarpena edo gaitzespena zehazteko orduan, eskabide bakoitzak lortutako puntuazioa eta saikapen orokorrean daukan posizioa hartuko dira kontuan.

Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek euren eskabidea onartu dutela edo ez jakinaraziko diete izangaiei, onuradun eta ez-onuradunen azken zerrenda argitaratuko da www.bizkaia.talent.eus eta www.bebasquetalentnetwork.eus webguneetan, agiri honetan lehenago adierazitako moduan.

Edozein modalitatetako beka eskatzean, eskatzaileak zuzen-zuzenean eta bete-betean onartuko du Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programa arautzeko asmoz agiri honetan adierazitako guztia.

Bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek eskumen eskusiboa izango dute, agiri honetan azaldutako baldintzak interpretatzean eta ezartzean sortu daitezkeen gaiak ebazteko orduan. Era berean, elkarrekin eta fundazioak erabaki horiek nahierara hartzeko eskubidea ere izango dute, deialdi honen izpiritua kontuan hartuta.

4.6. Egutegi orientagarria

Honako egutegi orientagarri hau ezarriko da *Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programako* deialdian:

- Eskabidea egiteko epea: 2016ko apirilaren 30a
- Ebaluazio prozesurako epea: 2016ko maiatza
- Emaitzak eta bekaren esleipena: 2016ko ekaina
- Programaren hasiera: 2016ko uztailaren 1a

4.7. Izangaientzako feedbacka

Hautaketa-prozesuko fase bakoitzaren amaieran, izangaiek feedbacka jasoko dute.

Izangaiek posta elektronikoz edota ohiko postaz jasoko dute euren eskabidearen onarpenaren berri.

Horrez gain, izangaiek hautaketa-prozesu zer egoeratan dagoen jakin nahi badute, hementxe sartu besterik ez dute: <https://extranet.bizkaia.talent.org/profesionals/>. Hautaketa-prozesuaren amaieran, izangaiaren interfaze pertsonalean agertuko da eskabidearen emaitza.

4.8. Kexak

Izangaiek kexarik edukiz gero, edozein fasetan errekurtsua aurkezteko 7 egun izango dituzte euren eskabidearen emaitza jasotzen dutenetik. Horrela, bada, “aukeragarritasun-irizpideen fasearen” ondoren, bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek Zuzendaritza Batzordeko bi kidek osatutako lantaldea eratuko dute, elkarteak eta fundazioak egindako lana ebaluatzeko. Une horretan inolako akatsik antzemanaz gero, eskabidea zuzenean joango da ebaluaziorako fasera, eta ohiko ebaluazio-prozesua egingo da.

Izangairen baten ustez, ebaluazio-prozesuan alderik egon bada, erakunde bakoitzeko Batzordeko bi ebaluatzailek osatutako Errekurtsio Batzordea eratuko da. Akatsen bat antzematen bada, proposamena bera oso-osorik edo zati batez ebaluatuko da berriro.

4.9. Programako onuradunei jakinarazpena egin osteko berrikuspen-prozesua

Hautatutako izangaiei onuradunak direla jakinarazi ondoren, kontratua sinatu beharko dute bizkaia:talentekin eta Cenarrusa Foundation for Basque Cultureekin. Truke-epealdiaren amaieran, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

- Onuradunek egindako banakako txostena. Bertan, honako haxe aurkeztu beharko dute: Euskadi eta Amerika arteko Aliantzak Ezartzeko 2016ko Lidergo Programaren laburpena, ondorio nagusiak eta programa hori hobetzeko proposamenak zein iradokizunak.
- Beste lurraldeko onuradun(ar)ekin egindako txostena. Bertan, honako haxe aurkeztu beharko dute: Programaren ondorioz lurraldeen artean eta beste fellowekin sortutako lotura berrien azalpena eta lotune zein lankidetzaren horiek hobetzeko proposamenak eta iradokizunak.

Agiri horien bitartez, izangaiak egiaztatu egingo du lidergo-programa garatu duela, bekako baldintzek kontratuko baldintzak betetzen dituztela eta eskatzailearen bilakaera profesionala aurrera doala. Era berean, oso tresna egokiak izango dira, bizkaia:talentek eta Cenarrusa Foundation for Basque Culturek proiektua ikuskatu, lankidetzaren aurrerapenaren jarraipena egin eta eraginkorra den baieztatu dezaten.

4.10. Laguntzaren ezeztapena

- Modu formalean onartu ondoren baina programa amaitu baino lehen onuradunak bere beka ezeztatzen badu edo beka bera diziplinazko arrazoiengatik indarrik gabe

uzten bada, onuradunari ordaindutako beka etengo da. Era berean, ordura arte izan duen edozein gastu itzultzeko ere eskatu ahal izango zaio onuradunari, betiere, aurretiaz onartu badiote.

- Beka esleitu zenean eskatzaileak argitalpen honetan zehaztutako betekizunak betetzen ez bazituen edo, sortutako baldintza edo betekizunen baten ondorioz, laguntza lortzerik edo amaitzerik izango ez balu, laguntza ezeztatuko da.